

SEGMENTAZIOA

Gure proiektua aurrera eramaten jarraitzeko, gure bezeroa nor den ondo identifikatzea eta jakitea ezinbestekoa da. Gure bezeroak dira proiektuaren oinarria, bezerorik eduki ez gero, gure proiektua ezingo litzateke gauzatu. Oso garrantzitsua da gure bezeroek produktuaz gozatzea eta gustatzea, izan ere gure eginkizuna beraien jolasteko grina asetzea da.

Gure bezero nagusia haurrak eta umeak izango dira, izan ere beraiak izango dira gure panpinetaz gozatuko dutenak. Ume gehienei izugarri gustatzen zaie panpinarekin ibiltzea eta panpin hauen bidez, haurrak aniztasunari buruz hezteko aprobetxatuko dugu, mezu hezitzaile batzuk adieraziz. Gure helburu nagusia txikiei beraiak jaiotako sexuarekin identifikatua sentitu ez harren, ondo dagoela beste sexukoa sentitzea transmititzea da. Ume askok panpinak hartzen dituzte eredutzat, eta oso beharrezkoa da erakustea pertsona mota desberdin asko daudela gizarteak ezarritako estandarretatik kanpo.

Umeez noski ez dute ahalmenik beraien kabuz papin hauek erosteko, beraz gure bezero potentziala umeekin batera beraien gurasoak izango dira. Gurasoen aldetik gainera era on bat izan daiteke umeei erakusteko zure sexuarekin identifikatua sentitu ez arren ondo dagoela hori sentitzea, eta noski gauza normaltzat hartu beharko litzatekela. Honela gurasoek beraien seme alabei lagunduko die eta baita ere ikusgarritasuna emango die beraien pentsamendua zabalteko.

Azkeenetan, umeez hezkuntza on bat jasotzeko oso garrantzitsua iruditzen zaigu ikastolak gure panpinak erostea materialaren parte izateko. Era honetara, umeez ikastoletan goza dezakete panpin hauek beraien egunerokoan normaltasunez hartzen beraien gorputzak eta panpinena. Gainera irakasleek aprobetxa dezakete panpin hauen etorria umeekin hitz egiteko eta beraietara normaltasun osoz hitz egiteko. Honela gure etorkizuneko gizarte aurreratu bat sortuko dugu pixkanaka honelako gauzak egiten.

Hau dena ondorioztatuta, esan dezakegu gure bezeroek izugarriko garrantzia dutela gure proiektuan, hau da gure oinarria direla. Ikastola Elkartearen esker lortuko dugu behar dugun plastiko guztia eta aldi berean beraiak izango dira erosleak beste hainbat pertsonarekin batera. Proiektu honetako oinarria gure ume, dendari, hornitzaile, gurasoak... dira.

